

## Gaztetxearen gainean



Enrike Diez de  
Ultzurrun Sagalá  
ITZULTZAILEA

**A**ldaketaren aroa hastearekin batera berpizten hasi zen okupazioaren mugimendua Iruñean, UPNkoen azken urteetan ia hilik egon ondoren. Kontua da hiru urteotan inoiz ez bezalako bideak zabaldu eta sos ederrak gastatu dituela Iruñeko Udalak udal jabetzapeko tokiak gazteei nahiz gizarte taldeei uzteko (Mendillo-rin, Txantrean). Iruñeko Alde Zaharrean bertan ere, ia hiru urteko prozesu ireki eta luzearen ondoren, Plazara ekimena gauzatu da, karrika Nagusiko Cruzat jauregi handia moldatzeko eta prozesuan aritutako taldeei uzteko. Iruñeko okupazioa egin duen jendeak, ordea, ez zuen prozesuan parte hartu nahi izan. Lehen okupazioa, dena den, aldatzarekin batera gertatu zen, ez kasualitatez Nafarroako Gobernuaren jabetzapeko eraikin batean. Egun haietan, EH Bilduk bazekien gazte talde horiek zerbait okupatu nahi zutela, eta Iruñeko alkatetzak udaltzainak igorri zituen udal jabetzapeko eraikin hutsak zaintzeko. Okupen asmoak ikusirik, Udalak berak bertze bide bat urratu zuen jende horri tokia uzteko, gazteen aisia udal eskumena baita, eta eraikin bat laga zien Alde Zaharraren ondoan. Gazte horiek, ordea, zenbait obra baimenik gabe egin, eta bide hori zapuztu zen. Bitartean, bertze gazte talde batek Sarasate pasealekuko eraikin pribatu bat okupatu zuen. Iruñeko udaltzainek okupak aterarazi zituzten, guardiako epaileak agindurik,

eta istiluak eta zaurituak izan ziren, baita atxilotuak ere. Udaltzaingoa EH Bilduren eskuetan zegoen. Ondotik, Nabarrieriako eraikin hutsaren okupazioa gertatu zen, UPNren agindupeko Nafarroako Gobernuak (denon diruarekin) aspaldian 1.700.000 eurotan erositako. Aipatu behar da, segurtasun arloko txosten batean oinarriturik, Iruñeko alkateak, zer gerta ere, ebazpen bat eman zuela joan den maiatzean gaztetxeko ekitaldiak debekatzeko; udaltzainei, gainera, agindua eman zien eraikin okupatu horretako ekitaldi oro eragozteko. Aginduak indarrean dirau, baina bistan denez, ez da betetzen. Nafarroako Gobernuak, ordea, Barne kontseilariak proposaturik, auzibidea aukeratu eta, azkenean, epaileak agindurik, foruzainak bidali zituen. Orain, eskuindarrak arras kontent, itxaropen oro galdua baitzuten heldu den urteko hauteskundeetarako, eta gaztetxeari sekulako etekina atera nahi diote. Beraz, aldatetaren aldeko indarrek gogotik egin beharko dute lana elkarren arteko konfiantza berreskuratzeko eta gaztetxearen aferari aterabide bat aurkitzeko. Zaila da, ordea, aldatetaren barneko indarren bat bera ere gaztetxea erabiltzen ari baita Nafarroako Gobernuak higitzeko. Gauzak horrela, gaztetxe baten indarrak baliaturik, UPN itzuli, Maravillas hustu, eta okupazioaren mugimendua ia hilik geldituko da urte batzuetarako. ■

## Usoei begira



Edu Zelaieta Anta  
IRAKASLEA ETA DAZLEA

**L**ehen aldiz balitz bezala begiratzea omen da kontua. Hain da zaila, baina, biziaren laugarren hamarkadan sartuta! Udan oparitu dizuten John Bergerren liburuak lagundu dizu biluzte horretan. Eta, batez ere, enperadoreen jantziak ongi bereizten ez dituzten hamar urteko semearen begi zoliek. Azken asteotan egin dituen –dituzuen– behaketen artean, hiriko usoak hartu dituzue hizpide behin baino gehiagotan. Ahantzixea zenuen mundu bat berreskuratu duzu zuk (zenbat uso zauritu eraman zenituen txikitari gurasoen etxera sendatzeko asmoz?), berak mundua deskubritzen jarraitu bidenabar.

Ohi den gisan, galdera berriak ekarri dituzte behaketa horiek: zer gertatu zaio uso horri hankabakarra izateko, aita? Zergatik ezin du horrek hegan egin normal? Uso zaurituak etxera eramaten zenituenen, zer esaten zizuten aitona-amonek? Usoak ere familiak bizi dira, gu bezala? Denetarikoak izan dira erantzunak, zalantzak, isiluneak eta interneteko bilaketa azkarrak.

Bergerri irakurri diozu animaliak behatzea ariketa atabikoa dela. Animaliei begira, edozein izanik ere, geure buruaz hitz egin dezakegulako. ■